

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

57/2022 Mozioa, ekainaren 8koa, Araban familia gurasobakar aitadunak eta amadunak babes guztiekin babesteko araudi-esparru bat ezartzekoa

Arabako Batzar Nagusiek, 2022ko ekainaren 8an egindako osoko bilkuran, mozio hau onetsi zuten:

57/2022 Mozioa, ekainaren 8koa, Araban familia gurasobakar aitadunak eta amadunak babes guztiekin babesteko araudi-esparru bat ezartzekoa.

1. Arabako Batzar Nagusiek erakunde eskudunari eskatzen diote familia gurasobakar aitadunaren/amadunaren titulua arautuko eta garatuko duen araudi-esparru bat ezar dezala, familia hauek berme guztiekin babesteko berariazko politikak eta babes-neurriak ezartzeko oinarri gisa, eta horretarako, familiaren, etxearen eta gurasobakar aitadun/amadun egoeraren kontzeptuen definizio argi eta garbi bat har dezala, Euskal Autonomia Erkidego osorako jarduera-irizpide homogeneoa ziurtatze aldera.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote, familia gurasobakar aitadunaren/amadunaren titulua definitu ondoren, udal ordenantza fiskalei dagokien araudi-esparrua ezar dezala, familia horiek dagozkien zerga-salbuespenak eta/edo hobariak izan ahal izan ditzaten, progresibitate- eta errenta-printzipioak kontuan hartuz.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote gure lurraldean zaurgarritasun egoeran dauden familiak babesteko politikak lantzen jarrai ditzala, zeharkako eta erakunde arteko ikuspuntu batetik.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 8a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA